

# Mundakako arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (V)

## Eneko Barrutia

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala  
barrutia5@euskalnet.net

### Abstract

This is the transcription of a recording made from a fisherman from Mundaka, in order to enrich the corpus of popular Basque language.

### Laburpena

Herriko euskararen corpusa gehitu guran, Mundakako arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da berau.

**Keywords:** transcripts, the variety of fishermen, oral corpora, Biscayan Basque.

**Gako hitzak:** transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera.

Herriko euskeraren corpusa gehitu guran, Mundakako arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da artikulu hau.

2000. urtean argitaratu nuen *Bizkaiko arrantzaleen hiztegia. Léxico marinero vizcaino* liburua. Liburu horretan Mundakako lekukoa Dimas Zaldunbide izan zen, 1921ean jaioa. Zaldunbideri laurogei ordu inguru grabatu nizkion eta berarekin izaneko bosgarren grabazioaren edo bosgarren orduaren transkripzioa da honako hau. Grabazioaren data 1990eko apirilaren 5a eta apirilaren 19a da.

Gaiak bat baino gehiago dira, hauek dira nagusiak: itsasoko txoriak, tresnak, aparrioak, sareak.

Artikulu honen helburua bikoitza da. Alde batetik, arrantza-mundua aztertu nahi duenarentzat lagungarri izatea. Bestetik, herriko euskeraren corpusa hornitu gura da. Corpus hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazago atera ahal izango ditugu era askotariko ikaskizun eta ondorioak.

Grabazioan entzuten den guztia transkribatu dut, bai informanteak esanekoa, bai neuk esanekoa. Neuk esanekoa letra etzanez ageri da eta lekukoak esanekoa letra beltzez. Batzuetan parentesiak erabili ditut, parentesi barruko testua ez dudala hain argi ulertzen adierazteko. Benetako dokumentua grabazioa bera da eta argitaratzen denean hobeto ulertu eta zuzendu ahal izango da parentesien esangura. Dena dela, Dimas honetan ere berezia zen, boz argia zuen eta ederto azaltzen zituen gauzak.

Han-hor-hemen berbaren baten gaineko ohartxoak ipini ditut. Gehienak hizkerari dagozkio, eta, gutxi batzuk, esangurari edo gaiari.

Aikomen orain urte batzuk neure lagun Dimasek eta biok edukiko elkarriketa.

## Dimas Zaldunbide

1990-IV-5

5 A

**...ónetie... ixenape astu eitzen dxastas da Jesus!  
amen agertuko da<sup>1</sup>, ixenape astu. Bweno, "Mar  
de España", áu da<sup>2</sup>**

*au da Mar de España?*

**au da "Mar de España", Mar de España...  
Gure basu fotokopi bat eitxeko berorregas**

*eske, andidxe dales, atara lei igwal?*

**bai bai bai bai. Estai señ ee kaletan dawen, esan  
dosten e se kaletan dawen**

*Bilbon?*

**Bilbon bai, bai**

*planuk eta gausa andidxek?*

**bai bai, bai bai bai, bai.. Ganera estaipadakot  
or, amata apur baten...**

*gorde ein bi da*

**estotas biar-da, baye... Fotokopidxek eiñdxa  
daus. Ba ónek eiñdosten txiki. Óneti aunek  
barruko kalak, fotokopidxe baye txiki, da  
estaipadakot nik amen e, (orren) fotokopidxe...**

*satike atarata*

<sup>1</sup> ahapeka esaneko esaldia.

<sup>2</sup> kalen izenak, plano bat erakutsi zidan.

**bai baye, gero atara dostin niri...**

*iru<sup>3</sup>.. o sea bardin da e?*

**bai**

*fotokopidxeti onek?*

**bai, aurrena(k).** Se nik e, einotzan<sup>4</sup> au, au einotzan, beste bat einauen-da<sup>5</sup>, a fotokopidxe ba baten baterii, galdu san. Dakot eiñdxe Billaurlarte, Billaurlarte. Da, omon notzan e, Andinoako patroyeri, eiñdxe plánue, errunbukas da danak e órretara káletara, se órrek estakidxi orko kalak. Da.. gero "agur Jwan!" Agur Jwan! Da, eitxeko oiñ e, barridxe ba, ónek danatie

*lelangoku falta da esta?*

**es, uno?**

*au de?*

**e?, (aur on) bi dau...**

*bost, sei, saspí, sortzi, bederatzi, amar, hamaika, amabi*

**Amen (dau)... Esta, onek estie, koño! esta(u) uno?...**

*dxausi esta ein*

**es, esta dxausi es.. Au satidxe da, falta dena.. auri. Auri satidxe falta dena. Ara, au mendidxe aur. Auri da, falta dena. Koño... Amen dau bat.. nweve, esta au.. koño berton on bi dau ba!**

*a! pegata on da. Klaro*

**bweno, orrek seuk eruen**

*neuk atakot kopidxa bat neuretzako*

**bai. Bai, es!, berori seuetzat<sup>6</sup>**

*es es, au seuk-*

**amen dako nik<sup>7</sup>**

*bai?*

**bai**

*esu gure au?*

**es, sewetzat. Erungosu.. erungo su.. au be bai. Ónetie, "Playa de las Motas" beitu berton apunteta ta astu**

*a, playa de las Motas*

**bai, au da, "Playa de las Motas"**

*au?*

**bai.** Gero amen e, orti dau, eee "Mar de España", "Mar de España".. Au da "Mar de la niebla".. deitxuten tzo. Au da, barruko kal-beste kala bat, sártzesara.. Oriñoeko plairarte sartzesara ameti barrutik, arrastan, amen káskue, enbarrie, da gure basu, berton dawen modun, seuk létra politxawas imingo tzasu orreri

*ikusten dis isenak, "Playa de Oriñon"*

**"Playa de Oriñon", bai, baye au, bai...**

*dibujante ona sara*

(pentzaten su?<sup>8</sup>). Beti seoser eitxen otenai<sup>9</sup> txe. Ónepedie, ámekoo kalak.. barrukuek, ara Bakídxó.. Ba áu da, urreko kálak, len e esan dunak e orrek... aurretie.. Bay ser? emoten tzatie, da gero, estostie.. entrega be-itxen da. Ba nik- nik esto biar ori e? Ori sewetzat, sewetzat.. sewetzat ori... /stop/ libruk asko, da librutatik eta, neuk eiñikupe bakota(s) nik

*mapak eta?*

**es e, mapape ein tas baye, dakot e nik e.. káletakoo.. arrastakutakoo, diaidxua baix-, bajukas da, bai, bajukas da, ee enbárrikas da, e káskue nondáwen da, órrek danatakotas nik eiñdxe, bai. Baye bakixu, e igual e baten batek esan da omondáa, agur. Bweno, oiñ e, (ser gusu? Dxesarri or)**

*es, gitxi dies*

(...) estau ardure, seuk-usun gustidzek

*batzuk txoridzek, igwal itxosoko txoridxetiseles, ori onek e Jwan Akanak bermiotarrak-*

**bai, Jwan Akana, bai**

*esan dosten txori baten isena "lapatxikue"?, entzun su suk?*

**.. lapatxikue?**

<sup>3</sup> plano beraren beste fotokopia txiki batzuk atera zituen, din a4etan.

<sup>4</sup> egin neutsan.

<sup>5</sup> einauen = egin neban.

<sup>6</sup> sewetzat edo seuretzat, zalantza.

<sup>7</sup> dako nik = dakot nik.

<sup>8</sup> barreka.

<sup>9</sup> oten nai = egoten nai, egoten naz.

*bai, negun otorten dala, ba txikitxu dala ta portuen da Artzan edo*

**a bai! bai bai bai, órretie kurruluntxoyen antzekuek, kurruluntxoyen antza, kurruluntxoyen antza. Da, kurruluntxoye da pikó-lúxie, igwal ongo da egwaldi ederra, da "kuiii, kuii" asmaten basu, euridxe gánien**

*euridxe ganien, olan da?*

**bai bai bai**

*da orduan entzun su "lapatxikue"?*

**bai, lapatxiku bai**

*da supe esaten su?*

**guk e kurruluntxoye. Bweno, kurruluntxoye, kurruluntxoyen antza dako, antza, txikitxue, aur ibiltxen da, portuen**

*lapatxiku esta esaten Mundakan orduan es? esta esaten Mundakan*

es, es

*suek es*

es es

*da kofrie-?*

**kófríe da ba ori, "arcorán"<sup>10</sup> o selan deitxuten (tzue), érderas? Kofri da...**

*andidxe da, esta?*

**bai bai.. Brasa beteko.. egu dako, batéti béstera, aulan imiñi txa brasa bete dako..**

*andidxe orduen*

**esta aiñ andidxe baye.. órretakos eguk lusiek. Bai, g(e)upe kófri deitxuten tzagu orreri. Kófríe<sup>11</sup>**

*da olako bi selan esango lekisu?*

**kófre bi. Orrek eitxen dau ondora, ño!, arrañe atrapatzen, bai, kofrie**

*da braye?*

**bráye da atun-txoridxe. Bai, braye dawé le-**

*"atun-txoridxe" esaten sue suek?*

**bai, bai, da bráye, braye. Baye, otorten da, atún-sásoyen otorten da ori, braye. Da, e, braye txoridxe ukusten bada, señale urre dawena atune, atun-txoridxe(k di orrek brayek)**

*da olako bi selan esango lekisu?*

**brái bi**

*badau txori bet "kala-txoridxe"?*

**kala-txoridxe?**

*badau bat?*

**bai**

*olan esaten sue suek?*

**bai, kala-txoridxek. Kalatxoridxe da, itxatxoridxe baiño txikidxawe, itxastxoridxe baiño txikidxawe. Txirleta, ori da kala-txoridxe**

*ori da kalatxoridxe, txirleta da?*

**txirleta<sup>12</sup>**

*orrek dxan eitxen dies?*

**guk beti dxan dus, atxiñe e? Oiñ e, oiñ (es) baye. Arrastan e órrek e, gibelagas, arrañe gibelagas, sapun gibelagas edo lebatzen gibelagas edo atrapatzen gendusen neguen, txirletak. Da, ee urridxen e, nobjenbree or ingeruen atrapatzen gendusen brayek, da saltzen gendusen e Ondarrun. Atxiñe ba beitu, ni ibil nayanin Ondarrun e, sincwentan da sincwenta y dosen da ordun saltze san pareji ogorloko bat, brai bi, edo txirlet bi ogorloko bat (ixeten san orduen)**

*da esan su "potorrue" len esan su*

**bai, potorrue<sup>13</sup>. Potorru da ba, amen kostan ibiltxen da ori. Kostan ibiltxen da. Mundekan e, Mundekako erridxun oiñ asko dau olakue**

*potorrue*

**ba potorrue, asko, ori da baltza, idxe kófrin gáñaku da, da baltza**

*olako bi selan esango-*

**potorro bi**

*da entzun su "ususue"?*

**uxuxu da, porture otorten di orrek neguen, bai, uxuxue. Ori, arrain txikidxen atzin ibiltxen da, abuxe edo, da eitxen dawie, sartzen da-**

*kofriles edo*

**es es, patules dabill, patules dabil da dzza! eitxen dau ondora ta, ño! portu gustidxe**

<sup>10</sup> "cormorán" esan gura izan ote du? Hori ez da kofrea, erdarazko gidetan "alcatraz" dauka izena kofreak.

<sup>11</sup> gaztelaniaz "alcatraz".

<sup>12</sup> gaztelaniaz "gaviota reidora".

<sup>13</sup> gaztelaniaz "cormorán".

errekorreren dau igual e, agertu barik e gora, bai bai

*da olako bi selan esango lekisu?*

**uxuxo bi**

*da "tirri-tirridxe" entzun su?*

tirri-tirridxe da, e, atun-txoridxe da ori be, da antxobetan be bai abille. Da, txikitxue, da, arraÑe ukusten dawenin lotzen da geldi-geldi-geldi, ta-ta-ta-ta-ta-ta, esatil- eguek mobiten da bertan geldi. Dzzik! eitxen dau gero.. ondora, bai

*da olako bi selan esango lekisu?*

**tirri-tirri bi**

*da Akanak esan dosten bat, "marikakie" entzun su?*

márikakie, bai. Marikakie, ibiltxen da, órren e, txirleten atzien da, neguen, txirleten atzin da, da berak e arraÑe atrapa biarrien, txirleta duna egas, a pikun bádarue edo, da e kaka eitxen badau edo, berak atrapatzen dau, segiten tzo, kendu arte, (da or) eitxen tzo marikaki orreri

*orduen suepe, Mundakako-*

**bai bai, "marikaki" bai**

*da olako bi selan-*

márikaka bi.. Órleri guk e, ño! kontramaixo bat okinawen nik e okerrawe, ño!, txarra, da atrapatzen gendun marikakie. Eitxen tzon, amarra estopi petrolius da su emon da an dxuten san egas<sup>14</sup> (...) Okerra ixeten san txoridxentzat, ño!

*"tresmalluek" oten sien sarielik?*

**"tresmalla" bai**

*eta "tresmalluek"?*

bai, tresmalla, tresmalla, "tresmalluek", "tresmalluek" esta deitxuten, tresmalle, die iru malle, erdiku da malla txikidxe, da kanpoko bidxeti "tápak"

*tapak sertzuk-*

tapak = malla andidxawe(k), malla andidxawe, orretie "tresmallek"

*oin be ibiltxen dies orrek?*

**bai bai, bai bai bai bai, tresmallak ibiltxen die**

*motor-txikidxez esta?*

<sup>14</sup> barreka.

motor txikidxez áunek e lebatzetan-da, edo onek e sarikas da ibiltxen dinak, aurrek motor txikidxez

*da traÑek bapor andidxek es?*

**baporak, bai, antxobatan da ibiltxen dinak**

*onek es kostatik dabiltzasenak*

e lebasale batzuk oin badakoye e? Oin badabiltzas, oin badabiltzas ee.. antxobatan, da traña ba usaten dawie karnadiitxeko, atunetako be bai txe, oin kosterie antxobetakue<sup>15</sup>, traÑek, orretie

*atunek iltxeko-?*

**mataputxeta, mataputxeta<sup>16</sup>**

*palo bat-a?*

**bai bai, palo bat, mataputxeta**

*da olako bi?*

**mataputxet bi. Da gero, ba atrapateko txistá**

*ori gantxua*

**gantxue txistá**

*astu dxast beste txori bet, sakatzekua? entzun su?*

**sakatzekue bai, sakatzekue. Sakatzeku da-**

*txoridxe da?*

bai, ee, áurren e.. txirleten antza edo eitxen da, txirleten antza edo eitxen da, ori da- ori be atunas ibiltxen da, sakatzekue, ori be txori txikidxe da e?, txirleta baiño txikidxawe da ori, txirleta baiño txikidxawe, orii elaaen e gáñako txoridxe da, baltza, sakatzekue, an ibiltxen da-

*millabarrikin antzekue?*

millabarrikin antzekue, eso es, millabarrikie. Millabarrikie, Ondarrun ote san patroí sar bat, deitxuten tzoen "Artapelo", da, arek millabarrikak ote sinien, órrek e ubilletan, esatiles e an e, enbarkasiñun atzien, ubilletan mártxan an, dxaten e loidxe datorrena, enbarkasiñotik, semat eta.. gedxau errimaten sin arék esateban egwaldi txarrawe. Da, ixeten san a, afesiñadue, Donostii- San Sebastian egunien, afesiñadu da patron de peska dabilela, arek eiñdxau (aur) Artapelok ukusi txe portora

<sup>15</sup> zalantza antxobatakue ote dioen, edo lehen ere zalantza antxobetan esaten ote duen inoiz. Dimasek beste kasu batzuetan breketan, luletan... esaten duenez, hain arraroa ere ez litzateke izango.

<sup>16</sup> gaztelaniaz "macana".

sartun, San Sebastian egune pasa(ten). Atxiña, (ori) illdxa dau e, Artapelo

*egidxa da gero egwaldi santarra-*

bai bai bai, bai egidxe da. *Artapelon txoridxe* deitxuten tzoen orreri. Millabarrikie baye *Artapelon txoridxe*, bai, elayen gañaku da ori be, baltza, atza botaten dau ganera, bai, sarri atrapa du, subira otorritxe ta, gaues-da, argira edo otorri(txe ta-), atrapa du

*dxateko?*

es es es es, atza botaten dau

*txikot baten ixena da "eskue"?*

eskú da trañen atzeko alderdidxe

*esta txikota?*

bai, baye atzetik okitxen (dawena e) trañek, askanengo, askanengo okitxen dawen txikota, eitzen dala e bota, da, botaten denin da "áurrie", "áurreko txikota", aurrie da kórtxora duna, áurrie. Da amaitxuten denin ee trañe botatie, lotzen da txikota, eskue. Gero dau, bragerue. *Brageru* deitxuten dxako-

*ori txikota da?*

txikota bai, anillutatik e datorrena, sarratuteko trañe. Erdaldunek "las llaves" deitxuten tzo

*euskera "bragerue"?*

brageru bai, kankamutati pásata, kankamutatik, da ori da, beraunin du ori. Da eitzen dau ba, birakeran, eitzen dau boltzie sarratu, ori da bragerue

*olako bi selan esango lekisu?*

bragero bi

*da bestie, eskue?*

eskó bi, eskue, eskoko txiko bi, se- se esatemasu "esko bi" ba esko bi die, eskoko txiko bi, edo áurreko txiko bi

*medjomunduek, setako dies orrek?*

medjomundu da, medjomundu da, e, arraiñ asko atrapatzen denien, trañe, esin ekarri gorau, da eitzen da nwebomundukas<sup>17</sup> bota, nwebomundu da arraño atrapatete sarin barruen, sarie, saku imiñdxe dawenin (an), sarin barrun atrapatete, da gero ya sikuau dawenin, usaten da sarabardue, bai. Ori da,

<sup>17</sup> berba izatez "mediomundo" da, "mundu erdi", zirkunferentzia erdi.

esiñdxenin ekarri arraño sarabardora, arraño asko ta báixu, esiñdxenin ekarri sarabardus atrapatete, uxaten da nwebomundue

*medjomundue oraingua esta?*

es!, atxiñeti dau ori, nwebomundue, atxiñetik, bai bai, atxiñetik

*olako bi?*

nwebomundo bi

*baya bestie?*

sarabarduek, sarabardu da gero, gero, ya arraño ekarten sunin sikutara esaten dxakona, ekarten sunin gora, sarabardus-

*erredin en antzekua esta?*

erredin. Erredin guk "sarabardue"

*erredin esta txikidxawe salabardu baiño?*

es, sarabardue

*dana da bat*

dana da bat, erredin ta sarabardue, dana da bat

*suek selan?*

sarabardue

*"erredin" es?*

es, sarabardue

*da gaur "bitie" esaten dana?*

bitie da ba, enbarkasiño amarraten (dena), bitie

*len esawen okitxen beste isen bat?*

biti beti, biti beti

*len esan esaten "motoloye"?*

mutilloye, ori

*motoloye esan esaten len?*

esan bai, esan *mutilloire amarra*, bai, esaten san bai

*bitie esateko esta?*

bitie da<sup>18</sup> mutilloye dana bat

*da suek esue esaten-*

e bitara amarra, bitan amarra

*da "motoloyen amarra"?*

mutilloye atxiño esaten san, oiñ esta esaten, atxiño esate san, mutilloye

<sup>18</sup> da = eta

*Mundakan?*

**bai bai bai, mutilloye**

*da olako bi?*

**mutilloi bi**

*da "korremusie"?*

**korramusi da, obramwertan duen, obramwertan due, esatiles e, álakoo.. trónko modure.. korramusie, da, korremusi da.. au da enbarkasiñun atzie e?<sup>19</sup> Enbarkasiñun átzi da au... au da armasoye, da au da korremusie, amarrateko.. txikota, ameti du txikota, errire kasu baterako, e? Da, ámen amarraten da korremusie.. Áulan due, aulan due txikota, e?**

*korremusie*

**korremusie**

*da olako bi selan esango-*

**korremusa bi**

*semat okitxen txus?*

**lau, bi átzien, baborr-estibor, baná, da aurrien beste bi. Da baitxe okitxen dawie, beste bat e, askok okitxen dau erdidxen, erdidxen, kasetin aurreko mandan, igwal ba, edoser, bragerue trínkateko edo, okitxen dau e.. korremusie**

*barkuek estakos kaelan puntetxu bi?*

**ori- ori da, e txikota pasateko**

*da se isen dako?*

**gaterie, gateri da ori**

*olako bi?*

**bi, gatera bi. Ortik due txikota**

*se-*

**errire botaten su-**

*eskue?*

**es, es, es, errire botaten sune, errire botaten sun txikota da ori. Da, ortik, ba karramusara edo bítara due, ori da errosatekoo, kael-gánie, kael-ganie es errosateko, orti du ba, gateratik sartunde txikotagas, gatera (bitxartetik)**

*Bermion esaten dawie "tamutxue"?*

**tanbutxu da**

*selan?*

**tanbutxue, tanbutxu da, oiñ e, oiñ orrenbeste estau baye atxiñe, aurreko arrantxuen, aurreko arrantxu sarratute bana, e?, esango tzut selan...<sup>20</sup> au da tanbutxue, aurreko arrantxoko entradien-, sarratuten dena, a da tanbutxue, tanbutxue**

*bat?*

**bat, bat, bat, bat-au. Gero amen eskilleratakos bera arrantxora**

*da olako bi selan esango-*

**tanbutxo bi**

*beitu nik eiñdxot dibujo bat barko batena ia ondo badau se estakitx aber e... au kasako barko bat es? Au "tanganillue" esta? Suepe-*

**tanganillue da-**

*aurreko paluen estau eruten e-*

**bai, da, amen ser diño?**

*botaberie*

**... botaberi da. Bweno. Tanganillue deitxuten dxako..**

*onen ganin igwal*

**e amen eingo tzut ensegida<sup>21</sup>..**

*ori kasarako da, esta?*

**bai, kasarako... Amén áurrin due... aurreko botabera txiki bidxek, botabera txiki bidxek, tanganillu au da**

*ori de tanganillua?*

**tanganillu au da**

*sosteniteko?*

**eso es**

*esta agiñe ori?*

**agiñe bai baye guk e tanganilluen agiñien, tanganilloko agiñe**

*au botaberi da, esta tanganillu esta?*

**.. ein- einotzun nik aulan ba, aulan, ameti du botaberie... bweno urteten dau gorantz, amen (...).. amen daru (au)lan, sillue**

*ori esta agiñe?*

**agiñe, baye, tanganilloko agiñe.. tanganilloko agiñe. Amen due botaberie, amen du botaberie**

<sup>19</sup> marrazkia egiten dabil.

<sup>20</sup> marrazkia egiten dabil.

<sup>21</sup> marrazkia egiten dabil.

da au- esanotzun áurreraukuen, da amen agiñien, egwaldi bariik eta olan kálmatausenien, eitxen da tanganillun beko agiñin imiñi, botaberie. Egwaldi normalien ba due goidxen. Da e dawenin e, esatiles dawenin e kalma-suridxek eta arrañe dxan gure esik eta (aur) bera botata botaberak eta, beko agiñin, eso es

*Bermion onaitxen e barkuek, esawen okitxen beko agiñik, osea agin bet, goikue*

bai bai bai, baye, len- len usaten gendun. Len usaten gendun bai. Da ganera usaten san, estawenak okitxen ori, agiñik, esatiles... ámetik botaberi esta? esawenak okitxen ameko agiñik, okitxeban estrapo bat eĩñdx, da ametik, dxuten san estrapue, da amen estrapun dxuten san botaberie, txikotas estrapu eĩñdx, bai bajateko amendi<sup>22</sup> gánetik, estrapue, agiñik espadako, eitxe san estrapo bat.. onetara, da ónek punta bidxek, ameti du botaberie da, au due ona, ona, goiko agiñera, amen engantxata bidxek. (Amen engan-) eso es

*da au barku ondo dau? Onek botaberak, es?*

**bai**

*gero okitxen dau amen txoridxe, es?*

**txoridxek, bai, (...)**

*iruretan dako, -botaberan-, igwal iru badaus*

es, amen bekun es, berrelekun es, es

*da emen erdidxen bai?*

**erdidxen da púntakuen**

*da emen beste txori bat-ako?*

**bai, (orrek be txoridxek)**

*txori bi orduen, es?*

**bai. Ori eĩñdxa daku, pentzaten dot**

*bai?*

**bai, ubille-ta**

*ubillie au de esta?*

**bai ubille**

*ondo dau amen?*

**bai, da**

*obengilluek*

**obengilluek. Da, au**

*sastarretako apaidxuek?*

sastarretako apaidxu au da, au bekue. Aunek bekuek

*onek es?*

**bai, orretie. Da-**

*da obengie gero*

obengie, eso es. Ónetie, ba, márkata dakosu amen

*sastarretako-*

sastarretako apaidxuek. Au da obengie, da obengilluek. Berrela, púntakue, da erdikue. Au da puntaku ta erdikue, da berrela

*gero au tanganillue, es?*

tanganillue, da.. tanganillu da len esan tzutena, au da tanganillue, bai. Ónetie, botabera txikidxek, aurreko botabera txikidxek. Aurreko botabera txikidxeti orrek

*Bermion esan dostien tanganillu dala ori aurrekue, esan barik e-*

**botabera txikidxe?**

*olan esango da Bermion igwal?*

guk e "botabera txikidxe" esaten du ta tanganillu da bertan botaberi du(n) lekue(.). Asjentaten den leku(n) botaberie, tanganillue, bai

*au arrastan estau-*

es es estau arrastan. Arrastakuek gure basus, badau e? Arrastakuek, bai

*planuek eta olan?*

**bai bai bai, badakotas**

*interesanti da ori*

bai, ba, badaus e?... Arrastakuti, (onek onek)<sup>23</sup>. Arrastakuek. Amen dau e, gure bada, arrastako gausa asko dau amen... /stop/ e esatiles e, mandak, mandak, bixerie, espaldie, mangie, sakue, manda bajue, baixue ta tripie. Gero ba... dakosu ba.. selan eitxen dawen biar, selan eitxen dawen biar bátak eta béstiek. Bówek, ee bakak

<sup>22</sup> aurreratxuago ametik esan du.

<sup>23</sup> liburua ekarri du.

## 5 B

*"parejje" ser da?*

parejje, bi, enbarkasiño bi, enbarkasiño bi tira(..., tituten). Au e gure badu.. (...), au dana arrañe. Gure badu au e, ein lei e

*au sarabardue, au da?*

es, es, au e árti da, ártie, ártie.. Ónek artik ba lodidxetie, lodidxek. Ámen arrañe apartaten, arrañe edose arrain txiki ta, dana otorten dales nástien. Ori aparta ein bi de da gero kájatan imiñi txe... artzen dauen e figurie arrastan e sariiek, onduen... "narrá", narrie

*"narrie" = arrastan, olan esaten da?*

narrán, bai, narrán. Esu ukusten selan duen? Au e, ein leigu<sup>24</sup>, seuk nota batzuk apunte ta ia setara.. dun esplika. Au da, nwebomundue, nwebomundue. Au atunerue, da simarroyek enbarkaten, atunerue. Gure basu

*sarikas?*

**bai bai, au da atunerue**

*da kasan esta ataraten atune ta?*

**bai, bai, baye, dakosu, Dákarretik eta dabilzasetak eta Seitxillesetik eta, orr Índikuen da, Pasifikun da danin dabilzasetak bermitarrak e atuneruek, txapasko bárkuek, bai, sarikas, bai bai bai**

*nik pentzaten dot ba, barku abante ta-*

es es, ara! Amen dakosu atunerue, sari barruen, oneri átzekuri deitxuten tzo "pángie", pangie. Ba ónetakoe ba árte andidxek, ara! an due pangie sarie bótaten, sari botaten dawe<sup>25</sup> da gero pángitakatzo txikotak e barrure. Au e gure-

*foto ederrak e*

**bai!... Gure badu nota batzuk seuk artun**

*da etxadi eiñdxe esta?*

**bai. Seuk artun da gero-**

*igual korronta badau gero au e*

plegaten da, bai baye plegaten denin orretako dako pángie, pángik agarraten tzo, estiborreko mandatik eta ae<sup>26</sup> tituten tzo, aék e ataten dau e

<sup>24</sup> leigu = geinke (genezake bat.).

<sup>25</sup> dawe edo dau e.

<sup>26</sup> arek.

**trañetik, bai... komeniten badxatzu, amén dau, au be. Ametik atakus e gausek**

*bai, se amen ederto ikusten da*

**bai, da amen e bánkuek, kalak. Gran Sol, Peti Sol, Korbuk, Melbille, la Pistola. Órretatik ibildxa nau. Kantilleko plaidxek... Seuri komenitemadxatzu, amen daku au, e?**

*ederto, ikustie beste gausa bat-a*

**bai, suk e, kasu baterako, ónetie, ranperuek**

*selan?*

**ranperuek. A- atzetik botaten dawi ónek eta átzetik enbarkaten dawi sarie**

*baye onelakuk badaus emetik?*

**bai! bai bai bai, Pasajesen da Ondarrun-da, bai, ranperue**

*Bermion es, estau es?*

**e Bermitik estabil arrastan iñor, enbarkasiñorik estau e, Bermiko enbarkasiñupadaus, Ondarrun-da, Pasajesen-da, armadoriek**

*patroyek bermiotarrak*

**bai. Len gedxau ote san. Baye, oiñ e Bermio atunerue eiñdxa gedxau. Len arrastakuek ixen din e armadoriek, gero atuneru eiñdxa gedxau. Badáus óndiño armadorik arrastakuek. Bay Bermion estau arrastako enbarkasiñorik, berbertan Bermion. Dxaubiipai, baye Ondarrutik edo Pásaitxik dabilzasetak... Au da bue<sup>27</sup>, brúsue... bue, "baka"<sup>28</sup> diño baye bue, bue... tríue, bai, ónek irurek, ónek e bi- bi, tríue, iru enbarkasiño ixeten di bardiñek, tríue, da, bat-abil beti, rútan, osea, e eitzen da biar, tríuen, bi daus biarrien, da batepákarrik artzen dau arrañe barrure. Allegaten denin erritxi dawena, arrañe saltzen dxunda daw a, erritxik allegaten denien, enparejaten da béstias, da, béstia arrañe artun dawena, berapákarrik enbarkaten dau arrañe gustidxe, ba amar egun edo amabi edo se tardaten dauen besti<sup>29</sup> dxun da etorridxe(n), da gero du a, béstik enpareja, da gero bat, béstik enbarkaten (dau), ori da tríue. Ibil nai triun be**

*nondik ibil sara?*

<sup>27</sup> katalanez bou = idia. Arrastako enbarkazioa.

<sup>28</sup> vaca = behia. Arrastako enbarkazioa.

<sup>29</sup> besti edo bestik, oso gaitza.

berton, Frantziko kostan, bai, Frantziko kostan.. (Da) ranpa-popa, len esan tzutena, buek eta... Au se ingu ba? Seuk e apuntik artun? Da gero neuri pregunte?

*da igwal bidxok ikusi amen da, igwal arrastako gausak edo*

**bai, bai. Au da atie, atie due ámen, amen du eskeitxe, atie**

*ser da atie?*

**ati da, e bákik-da, e sari sabalduteko. Da.. dárue, atiek, atitarues, "pie de gallo" bi**

*pie de gallo-*

pie de gallo bi. Á da, bátek e, báta txikidxawe, bestie asidxuawe<sup>30</sup>, da, sabaldutekoo atie, esatiles e, arrastan onduen imintxeko, éretara, da aregas sabalduten da, pie de galluek, semat-a gedxau, semat-a okertu gedxau atie ba sabaldu, sabalau edo, bai. Da ori gero, ukusten da, beyen dakoles burdiñie.. atik ukusten da selan eiñdxawen onduun biar, larrei eitzen bádau e átzin gánera edo áurrin gánera edo selan eitzen dawen biar

*aidxena da, au suék olan deitxuten-*

aidxena ba- ara! amen atie<sup>31</sup>, au da atie, etzut esan, amen a, burdiñie? aspidxen? Da, amen e, oneas brilluas, ukusten da selan eitzen dawen biar atiek, asko musturrera eitzen bádau, señale musturrera datorrena atie, da asko eitzen badau átzin gánera be, ba átzin e bríllo gedxau, olan igarten da, bai. Arrastan e, katik e les, arrastan e, parejan ibiltxen giñenien katiek.. kasu baterako dxakitxeko bapor batek gedxau edo béstik tituten bádau gedxau, katie, éspadator bidxen-, alkarren e antzin suritxute, onduen, beraun módura dus katiek, éspadau bidxek eitzen biar e, bardin, ikusten da báta katie dawena bríllo gedxaugas da bésti bríllo gitxiaugas. Da, semat eta brillo gitxiau dakon, arek gedxau tituten da(u), a altza eitzen dau-te. Da semat-a brillo gedxen dakonak, ak<sup>32</sup> e gitxiau tituten dau, se gedxau arrastaten dau-te. Olan e, dxakitxeko, bai... Gero, ba, bera sarie, ee, asko aplastata bádató, e, ba maestra gitxi, "maestrak" deitxuten dxakoe, darun bonbilloyek e, kórtxue, bai

*suepe bai esaten sue?*

**bai, maestrak, bai bai, maestrak, bai. Da, ukusten basu, mandak, asko aplastaten dina(..), esatiles basi dakarrena mandán áltu, señale maestr(i)n fálti dakona, maestra gedxau gu**

<sup>30</sup> *asitxuawe* esan gurako zuen.

<sup>31</sup> liburuko argazkia erakutsiz.

<sup>32</sup> normalean *arek* esaten du.

dawena sariek. Ori eitzen dawé, korrentape eitzen dawie, korrenta áldera básues eitzen da, sari be, sari be baixutu gedxau, aplasta eitzen da, aplasta eitzen da, da korrenten kontra dator ba, áltuau... típue amen dakotzu, arrasteko típuek. Redes de bou, sarik bákakuek, sarik parejakuek

*redes de fondo, ondoko sariek*

**bai. Gero dau, "abertura vertical", áltuau datosenak, orretie, e, "semipelágicas", gero daus "redes pelágicas", orr e- óndiño Españan esta usaten, frantzesapadabillie<sup>33</sup>, frantzesapadabillie... Ónek estiee, selan esan du len?**

*tangani-*

**tanganilluek. Tanganillue, ixengo da bai, se, oné nagosidxek, dako ixena "tangué"**

*tangué ser da?*

**bera, botaberi duna, au da tangué**

*dana?*

**bai, au au au, au da tangué. Da tanganillue áurrekue, se txikidxauti-ta**

*a! aurreitxik ixango da*

**aurreitxik, bai bai bai bai bai, neu be bakixu selan on nayen e-, da, tangué, au da...<sup>34</sup>**

*osea emen dako agiñe, bueno ori*

**bai bai. Se orren ganin due, botaberi orren ganin due**

*au kaelan imintxen da esta, kaelan ganin es?*

**bai bai, orii, e tornillukas da imiñdxá dau, bai bai, ori due ya atunetan, gero kendu eitzen da baye..**

*da au da tangué orduen es?*

**tangué, bai, da aurrekue txikidxe dales "tanganilluek"**

*tangué, da au aurrekue?*

**tanganillue, e ontxe akorda**

*klaro, ixango da, txikitxu dales*

**bai, astu eitzen dxastas gausek eta, bakixu... Au e, nipentzaten dot onduen ixengo dela, seuk**

<sup>33</sup> frantsesak badarabile.

<sup>34</sup> marrazkia egiten dabil.

erun au.. da suk apunta, esatiles "re de bou",  
da gero néuk esan éuskeras, satsosenien, ostabe

*neuk atara ixenak eta gero pregunta*

bai suk erderas imiñi, e? Érderas imiñi,  
gausek.. sér den bixerie, sér den e sarie, sér den  
atie, sér den e, maniobrie da, seuk imiñi,  
apunteta, da gero supreguntatestasu niri,  
éuskeras

*a euskeras selan esaten-*

selan esaten den, se ostantzin e, estu ingo esta?  
e?

*ederto, ba ori eingot orduen?*

bai bai, suk au eruen, suk au eruen, da, seuk  
apunte, apunte arrasteko gausa gustidzek

*amen datos esta?*

bai bai bai bai, berton dakosu arrastekue,  
berton dakosu arrastakue<sup>35</sup>

*oin dxun bi dot, trena atrapatzen*

Bermiora? Bermiora sues?

*es, Bilbora*

amén dakosu arrastakuek, amen dakosu,  
berton esangotzu, se ordutan dakosu?

*ordu batetan*

ordu lauren dakosu... artes de arrastre, tipos de  
arrastre, tipos de buques, bous, bou clásico,  
maniobras, amén dakosu daná. Arrañek  
atrapaten dina(k): merlusa, gallo, maruca, sapo  
negro, sapo blanco, merlán, locha, calamar,  
perlón. Da kaladeruek<sup>36</sup>. Da suk e, artzesuu  
etzien, apunta, aulako papel baten dakasu, da  
gero nik esangotzut éuskeras, au áu da, da ori  
au da, e?

*ederto, niretzako ederto*

bweno, mwy bjen. Ordun au seuk eruen, au

-----<sup>37</sup>

1990-04-19

... da BÍlbon euri-tántaripes

*euri-tantaripes atzo?*

<sup>35</sup> esaldi berean arrastekue eta arrastakue transkribitu  
dut, asmatu ote dut?

<sup>36</sup> segurutik "caladero" irakurri duelako liburuan,  
ezpabere berak *kalak* esaten du eta.

<sup>37</sup> apirilaren bostekoaren amaiera.

da, goixien, da otor giñenin e onántz asi san or e,  
Mungidxe ingeruen, mekagwenlapuñeta! Mwy  
bjen, vamos a ver

serdiño aitzepa?

*(...) igual bidzar perretxikotan*

a! a! Bádau perretxikorik ela?<sup>38</sup>

*estaipa ori badau edo*

eguski apur bepalego, esatiles e euridxe ta gero  
eguskidxe. Mwy bjen

*da amak gorantzidzek emon dostes ba sutzako  
ta Germanintzako ta*

bai, ba omon e barriro, seupe, gorantzidzek

*atara dotes isen batzuk erderas emetik*

bai

*estakitx euskeras gero okingo badawe e*

igwal e, bai

*igwal batzupai beste batzuk igwal es, esta? Se  
batzuk igwal gatxak esango dies*

da ikusku ia selan dan. Libru- libru desde  
lwego elegantie, elegantitie

*ikusten da selako foto ederrak eta*

bai, da esplikasiñu

*esplikasiñupe bai da, esplikasiñotik atara dot  
au*

esplikasiñuek.. karuutie baye

*klaro, ostantzin erosiko neuke igwal*

bai, nik e, alabik ekarten dost niri aulan au e,  
aulan, (otorteri)<sup>39</sup> berá, da amentxe nau ni..  
neure kéitxien<sup>40</sup>, imiñi rádidxu edo ta neure  
keitxien amentxe edo telebisiñue dd! Mwy bjen

*da au da kolesiño konpletua edo*

bai, bai bai, (..) konpletu dakot, bateti saspire

*batzuk ataten dabe gedxau be bai*

a! bai, igwal e ongo da, igwal ongo da, igwal  
ongo da

<sup>38</sup> kontuan hartzekoa da egitura honen azentua. *Badáu*  
da azentu arrunta, egitura honetan [ba- -rik ela?], berriz,  
*bádau*.

<sup>39</sup> otorten die? = etorten die? Goian bizi dira, behean  
beste bizitza baten egoten zen Dimas bere lanak egiten.

<sup>40</sup> neure kautan, neu neutara.

*igwal atako dabe beste bat igwal?*

**igwal ongo da, estaipe, estaitx, estaitx. Guri, saspí, ekar doskuen. Estaitx nondik<sup>41</sup> ixen san, Barselonatik ixen basan**

*esta amekua au Etor, argitaletxea, ameku isango da*

**ameku ixengo da, estaipe, se beste batzuk e, a, askanengoku saspigarrena atzo alle-e oiñ iru egun-edo allega da, aur da, Historia, vasca de, nik e au itxasokue eitzen dot gedxau, da errepetidu igwal ostabe, itxasokue. Neu- neure ori gausie itxasokue. Mwy bjen, ala**

*esate baterako, emen diño, aparejos, "los medios de pesca que utilizan anzuelos y líneas", "líneas" erderas?*

**e "líneas" die-**

*baye euskeras suk selan esaten dosu?*

**líneas da eskoapaidxue, eskoapaidxue, líneas da eskoapaidxue. Da bésti sésansu?**

*aparejos, los medjos de pesca que utilizan anzuelos y líneas*

**"líneas" die esko-apaidxuek. Da bestitie, tertzak, atxiñe, tertzak, besegutako ta papard(u)tako ta ise- usetesin tertzak, da oin deitxuten tzoé, "pjedrabiola"**

*diferenti da "tertzak" eta "pjedrabiola" esta?*

**e, onbre, diferenti da, bayee kasu baterako dana da bat. Atxiñe tertzik okitxeban, baa, beseutako, eun da berrotamar - eun da irurogei amo. Da papard(o)tako okitxeban bérreun ámo, da ónetie baa, ee lusiek, da arek ixeten sien, potxeragas da subillegas iñikuek, da ónetie pítxaskuek. Kasu baterako dana da bat, diferentie-, esatiles dana da bat, se, au e pjedrabiola be da, tertzi ixetiles, baye lusie, da gero du jiratoidxukas daa, pítxias. Da tertzi be ixeten san, bardiñe, baye jiratoidxo barik eta, potxereskue, ordun e, pítxi-ta, esan e, usa beixen-da<sup>42</sup>, ogón bes, ogon bes, ori da**

*eskoapaidxue, ori bai esaten da orduen*

**bai**

*da gero diño "artes", los que emplean paños de red, paños de red?*

**bai, artitie, artitie trañé, trañé, ee, gero dakosu.. gero dakosu, tresmállé**

*atxiñeku da esta?*

**tresmalle oingu da, oingu be bai, atxiñetitor ori, atxiñe ariskuek ixeten sien, oin da náiloneskuek, sarie da ori, re, sarie.. esan dot. Mállabákarrak, bolántak..**

*dribe-*

**driba-sarie, oiñ esta usaten, oiñ esta usaten. Ori, eee, sesangotzupa? Cuarentaa baiño lélautik ya akaba san ori, amaitxu san bai, amaitxu san. Da, artiek die baitxe, saredunatie, arrasterunak, bówenak, makallerunak, da, bweno parejie, da bowé ta, bákíe, órreties saredunek, ártiek. Oin diferente, artitie. Ártie, antxobataku<sup>43</sup> da, ba, lárqaten dena, e bera arrañe ukusitxe biribillien, atrapateko, sérka<sup>44</sup>, eitzen da. Atunetako be, bardin, baye oin da ba málla andídxawe, lusiau ártie, da, orí**

*da atune esta atrapaten kasan?*

**bai, bai, kasan be bai, kasan**

*sarikas be bai?*

**sarikas, bai, atxiñe, masidxe, masiitxen e, masi itxen san, da bóta. Da, sarias atrapaten san e igwál e, barruen, (ba esta sartzin bapes baye), da gero sari usaten san pikin, oin biberutaus, ba orduen eitzen san atrapa antxoie, da bertan sarin okin uretan, bixirik, da, pikien esatiles, kaña- ee, orduen kañaberarik esan usaten, ordun eskoapaidxue. Eskoapaidxue bota, da agarratebanin ba, gora. Da, órrepa, órretie "asaleko ártiek", e antxobataku ta atunetaku da, asaleko artie. Tresmalla, tresmalle, daa bolantak, daa, driba-sari be, asaleku da, baye bolántak.. da ónek ee, sapo-sariek**

*"sapo-sariek" beste batzutaus?*

**bai, beste klase bat, dana da, sarie, baye.. órreti ondokuek. Órretaus ondun ormiles, esate baterako, orma bat eitxiles, da arrañe pásuen, bátera edo béstera, atrapaten (da), ori da**

<sup>41</sup> *estaitx* ahoskatzen du argi, berba bien artean pausatxua egiten du eta.

<sup>42</sup> *usa* be egiten-eta.

<sup>43</sup> ezin dut bereizi *antxobataku* edo *antxobetaku* dioen.

<sup>44</sup> ezin dut uste aditz hau erabilia denik normalean, gaztelaniazko "cercar"-en bat-bateko itzulpena dirudi.

*da, en los artes de pesca podemos englobar arrastre, cerco y enmalle. Cerco da-*

**bai, sérkue, ori (ba) antxob(e)taku bai, ori esan tzutena da bai**

*da "enmalle" ser de erderas? Arrastre, cerco y enmalle*

**enmalle, mállaten dena arrañe, bai, orii tresmalle. Órretie mállaten dinak, tresmalle, mallabakarra, bolantie, daa, órretie, arrañe málla eitxen dinati orrek, ori da, ori gudau esan**

*en los aparejos, palangres, ori-*

**esan du, palangrie, da<sup>45</sup> tertzie**

*tertzie da palangrie?*

**palangrie. Ori da, palangrie. Amén Mundekan tertzak esaten san, tertzak esaten sien, da Bermion palángrie. Da tertzak, tertzak. Da, tertzi da esate baterakoo pjedraboli be, oin dela ba diferente eiñdxe, da bardin darue, ámuk eskeitxe dárues, bardín tertziles, bay tertzi esan tzuten modun len**

*"aparejos verticales y cacea", cacea?*

**kasie da kurrukanak, bai, kasakue**

*txikota da esta?*

**bweno, usaten da pítxi be bai, se, ee, atunetako, da kurrukana. Da usaten da, baa, usaten da, mm, txikoteskue, maimena. Da ee, usaten da. Da púntan oiñ e, len alanbrie usaten san, karnadan e imiñdxe alanbrie, da oiñ usaten da fitxié, bai. Daa... kañaberan-da dabilztasenien, bweno ónek, lebasaliek, txikidxe, lebasaliek dabilztasenak atunetan, óne karretatakoye, karretak, atunetako, se lagun gitxi daus da botaten tzu<sup>46</sup> amalau edo amasei apaidxo, da lau - bos lagun dues. Ordun dakoe "karretak", da euren frénukas-da imiñdxe. Órretaru pitxié, se karretie, agarraten dawenin e, biraten dau(i) ba, orregas, makinilli- esatiles eskus. Ori da, da, kurrukana da baitxe ba (aun) kasan ibiltxen dena txitxarrota-da. (Ba) kurrukan txikidxe, kasa- kasako apaidxue, kasako apaidxu da, ori da kurrukana**

*orduan "cacea" "kasi-" selan esan su?*

**kasa- kasako apaidxue**

<sup>45</sup> da = da (izan aditza).

<sup>46</sup> deusue(z), batuaz "botatzen dizkizute hamalau edo hamasei aparío".

*da entre los utensilios, nasas, bayas y utensilios de marisqueo, nasas?*

**nási da, ee, atrapaten dawina.. nékorak, nekorak atrapaten dawina, násati otzarak, otzaratie, atxiñe usaten san langostetan: langosta-otzarie, esaten sana, langosta-otzarie. Da, érderas di "násak", ori da**

*erderas*

**erderas "nasak", euskera esta "nasa", otzari da. Oiñ atrapaten tzue, órrekas otzarak, atxiñe ixeten sin biribilek, otzari(n) modure, baye oin die, ee, se(lan) esango tzupa?.. Oin dies e, esatiles e, sirkularrak, aspiye asjéntue, da án du sementu ondora dxuteko, da órrek atrapaten dawie nékorak, da órrek atrapateko die, "nasak" edo "otzarak"**

*eta orain selan deitxuten da, otzarak?*

**e, ff! oiñ (esan eitxen tzoe).. ff! Karamarrutakoo apaidxu edo, olan, bai, karamarrutako-**

*eta "bayas" sertzutie, bayas?*

**(orixe estaitx)**

*nasas, bayas y utensiljos de marisqueo*  
**nasas, "bayas" se ixengo da ba?<sup>47</sup> "(Utensiljos de marisquero" órretie, utensiljos de marisquero órretie, otzarak eta órretie, oin, marisku bada liorrin atrapaten dena-**

*liorrin atrapaten da bai?*

**e? liorrin marisku bai: lapié, óstrie**

*atxetan eta*

**bai, txirlíe, daa au e, selan da?.. Arrá, bweno arra esta mariskue, e au e... márbola, márgola, da, eresie, ba orrek mariskutie (baye orrek) liorrin atrapaten dinati orrek, liorrien, esatiles edo marie bajaten denien**

*plaidxetan eta esta?*

**pláidxetan da erreketan da olan, eso es**

*da, artes de arrastre, su tamaño se swele expresar en función de la longitud de la "relinga del corcho" y del burlón*

**sí**

*"relinga del corcho" ser da ori?*

<sup>47</sup> zer ete da ba? (Euskera jatorrangoan, ezta?)

la relinga del kortxu da, kórtxu dun e txikótá,  
kortxu dun txikota, ásten da, kalóyé

*bai, leidu dot ori*

bai, kalóitxik asten da, da due bwéltan-bwéltan-  
bwéltan-bwéltan beste kaloirarte

*kaloí bi dakos?*

bai, kalói bi. Da kaloitxik e, gero due, or  
erdidxen esatiles e

*e "relinga del corcho" ori?*

kórtxoko txikoteyen<sup>48</sup>, erdidxen due olan  
biribillien, da deitxuten dxako orreri bixérie,  
bai, bixerie. Gero ortitue, sakorarte, deitxuten  
dxako burlóyé, burloye, deitxuten dxako  
burlóyé, baye, burloye deitxuten tzagu<sup>49</sup>  
beraun-, beraunetik e, beraunin due, beste, oiñ  
e, len usatesin malletadunak, oiñ usaten di  
alanbraskuek, burlóyek. Da orretie, katik  
imintxen dxakoenak, ondun e, ondun  
asentateko arrasterako apaidxue, arrastateko.  
Da órtik asi txe sakorarte da burloye. Da gero  
dator sakue. Da, e burlói bidxen bitxartien,  
esatiles, kórtxoko burloye, da berauneko  
burloyen, órreri deitxuten dxakoe mándak,  
mandak, da koronen bitxartie, koronin  
aspidxeri deitxuten dxako *papúek*

*papuek*

bai, papuek. Da órtik átzera da.. burloye,  
sakorarte, eso es

*da "relinga del corcho" selan esaten da  
orduan?*

kórtxoko txikota, kórtxoko txikota. Baye,  
arrastan esta eruten txikota e?, edo due,  
malletaduna, malleta fiñe edo olan due, da  
órretan amarraten (da) gero kortxuk e  
altzateko, apur bet, esatiles sabalduteko sarie

*sariék es, emen diño dausela iru klase: redes de  
bou, redes de baca*

bai

*ta redes de pareja*

bai

*olan da?*

<sup>48</sup> txikotien. Inoiz lapsus modura egiten du(te)  
deklinabidean, -ue barik be lapsus modura -oue.

<sup>49</sup> azkenean ordena zaharra ere erabili du: burloye  
deitxuten tzagu...

bai, bai, re- re de bou, re de bou da-

*selan esango lekisu euskeras ori, "redes de  
bou"?*

e bowén sarie, bowen sarie. Órrek usaten die,  
mandaktarue<sup>50</sup> labúrrawek, mándataru  
laburrawek, burloyeti txikidxawek, daa,  
ostantzien, bardin-antzera. Buek, arrasteruuk  
e, parejik-eta enbarkaten dau sarie, puntálakas,  
da buek enbarkaten dau eskus, sakorarte eskús,  
da gero sakora allegaten denien, arrañe  
enbarkateko, saku enbarkateko, omoten tzoë, e  
estrapo bat da, puntal e orreas, aparejus edoo  
puntalas enbarkaten dau barrure

*biar gedxau dako orduen esta?*

es, gero, sélan alá, mandatik alaten dawiles,  
imintxen tzu<sup>51</sup> bertan kostadun esta? sarie  
alata, da gero saku enbarkaten tzu, da bera  
sarie, sakue, arrañe, álako txiko bat-ako, sakun  
aspian<sup>52</sup>, ataten dau arrañe, da bera saku du  
ostabe uretara ta kostadun daweles án du ra-  
ra-ra-ra uretara, átzera bera sarie, apurtute  
espadau. Da, gero dau e kalói bidxek, kaloi  
bidxetati due malletie, malletie. Malleti due  
atérá. Da, atiek, erriten dau e mártxa-mártxa-  
mártxan da, atiek sabalduten dinien, ate bidxek  
sabalduten dinien-

*bi daus?*

ate bi, bai, burloi baktxien, edoo, kaloi (ba)  
manda baktxien dárue atie. Da segun se ur,  
erriten dxako onenbeste malleta edo arenbeste  
malleta. Buek malleta gitxiau usaten dau  
parejipaiño, bai. Parejik porreglajeneral beren  
sei malleta beti erriten txus, e urasidxen, sei  
malleta, oiñ amen sikuten, Frantziko kostan da  
sikuten, sikuten deitxuten tzagu ba, irurogei  
mille ta- irurogei brásetati barrure, ór láu  
malléta, bai, lau malleta ingeru. Da, erriten da,  
parejik alanbri be gedxau erriten dau, alanbrik  
e, alanbri be gedxau erriten dau, buepaiño,  
buék ee, buék e dárue, ónek e, sarin beyen be,  
dárues ee tanbórrak esate baterako, tanborrak  
esate baterako, pixu be gedxau, da laburrau  
errita dxuten da parejipaiño. Parejiek segun se  
ur, eesate baterako ba, piesi da, pjesiitako  
alanbrin pjesitako berréun brása, berréun

<sup>50</sup> kt ere ez da izango transkripziorik egokia; zein ote  
da, ba?

<sup>51</sup> deutsu(e) = dizu(te).

<sup>52</sup> *aspidxen* da normalean.

brása, baye oten da, erdibitxute, esatiles e,  
eunbana brasa, bwenó berréun metro gut<sup>53</sup>  
esan, eun- eun-bána metro, erriten da, da baa  
berréun eedo eun da berrotamar brásetan  
erriten die ba igwal, séi pjesá esaten tzagunak,  
bay die eun-métrokuek, órretus márkata  
katie(g)as, katie da katin-<sup>54</sup>

---

<sup>53</sup> gut = gura dot. Mundakan besteren bati ere entzuna.

<sup>54</sup> amaitu bako esaldia, kaseta amaitu egin zitzaidan eta.